

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOVERNU SAILA

4760

AGINDUA, 2018ko irailaren 18ko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren argitalpenen prezio publikoak finkatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legearen testu bateginean jartzen duenez (irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretu bidez onartu zen), zuzenbide publikoaren pean eskaintzen edo egiten diren zerbitzu edo jardueren truke ordaintzen diren baina tasak ez diren diru-ordinak dira prezio publikoak.

Testu bategin horren 31. artikuluan jartzen duenez, dekretu bidez zehaztuko da zer zerbitzu eta jarduera ordain daitezkeen prezio publikoek bidez, bi sail hauetan batera proposaturik: Ogasuneko eskumenak dituen sailak, eta zerbitzu-jarduerok eskaini edo egin behar dituen sailak berak edo erakundearen ardura duen sailak.

Hori dela-eta onartu zen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretua, zeinaren bidez zehazten baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta erakunde autonomoen zer zerbitzu eta jarduera ordain daitezkeen prezio publikoek bidez. Dekretu horretako eranskinetako 9. puntuaren dator zehazturik, hain justu, argitalpen-lanetako eskumena duen sailak zer zerbitzuren truke eska ditza-keen prezio publikoak.

Apirilaren 7ko 67/1998 Dekretuaren 21. artikuluan, berriz (dekretu horretan dago arauturik Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren argitalpen-jarduna), adierazita dago editatzen diren argitalpen guztiak prezio publikoa behar dutela eduki, salbu ale guztiak dohainik banatzekoak direnean edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin trukatzeko direnean. Eta, jarraian, adierazten du ezen, prezioa zehazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legean eta lege hori garatzeko arauetan xedaturikoa bete beharko dela.

Bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legearen testu bategineko 33. artikuluan jartzen du Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren ardura dela beraren sailari dagozkion prezio publikoak zehaztea edo aldatzea, agindu bidez; aurretiaz, Ogasuneko eskumenak dituen sailak txostena egin beharko duela, eta loteslea izango dela.

Horregatik, araudiek ematen dizkidaten gaitasunak baliatuz, eta Ogasun eta Ekonomia Saileko organo eskudunak aldeko txostena idatzi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea dugu Argitalpen Zerbitzu Nagusiak egiten dituen argitalpenak saltzeko prezio publikoak zehaztea, paperean nahiz euskarri elektronikoan egonik ere.

2. artikulua.– Argitalpenak saltzea.

Agindu honek badu eranskin bat, zeinean tarifa-taula bat erantsi baitugu. Hor dago zehazturik zer prezio publiko izango duten, jendartean saltzeko orduan, Argitalpen Zerbitzu Nagusiak egiten dituen argitalpenek, paperean egon edo euskarri elektronikoa izan, eta balio erantsiaren gaineko zerga barnean dela. Zerbitzu hori Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean dago, Baliabide Orokoren Zuzendaritzari atxikita.

3. artikulua.– Argitalpenen prezio publikoetako hobariak.

Badira hobari batzuk, argitalpenak saltzeko orduan aplikatzekoak. Ikus dezagun noiz eta zenbatekoa aplikatuko den (ezin dira metatu):

1.– Liburuaren egunean eta liburu-azoketan, ehuneko hamar.

2.– Ehuneko hamabost, liburutegietan, artxibategietan, museoetan, legez onartutako ikastetxeetan edo, sortzez, zientzia lantzeko edo ikerketa egiteko diren erakunde edo zentroetan.

3.– Gazte-txartela daukatenentzat, ehuneko hogeい, Argitalpen Zerbitzu Nagusian erosten baldin badituzte argitalpenok.

4. artikulua.– Ordaintzeko epea eta modua.

1.– EAEko administrazio orokorraren eta erakunde autonomoen zuzenbide publikoko diru-sarrerak erregistratzeko eta automatikoki kobratzeko, indarrean dauden arauetan jartzen duen bezala egingo dira ordainketak, Administrazioaren Ordainketa eta Kobrantzen Sistema Integralaren bitartez.

2.– Aukera bat da prezio publiko osoa aurretiaz, eskaria egiten den momentuan, ordaintzeko eskatzea, dena delako ondasuna entregatu baino lehen, edo dena delako zerbitzua eman baino lehen.

3.– Administrazioak ordainketaren ziurtagiri bat eman beharko du. Bertan, gutxienez datu hauek adierazi beharko ditu:

a) Zein organok egin duen.

b) Ordaintzailearen izen-abizenak edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta guzti.

c) Helbidea.

d) Kontzeptua.

e) Prezio publikoaren zenbatekoa, zer hobari aplikatu den –halakorik egon bada– eta noriz kobratu den.

f) Balio erantsiaren gaineko zerga.

4.– Prezio publikoak osorik edo zatiren batean aurretiaz ordaintzeko eskatzen ez denean, kitapenetan ematen diren ordainagiriek notifikazioaren balio bera izango dute, eta, horretarako, beste datu hauek ere adierazi beharko dituzte:

a) Zein aurkaratze egin daitekeen, zein organotan, eta zein epetan.

b) Zorra non, zein epetan eta nola ordaindu behar den.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 18a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

2018ko urriaren 1a, astelehena

TITULUA	EGILEA	LEHENDAKARITZA	URTEA	ISBN/ISSN	PREZIOA
Somos vasco-argentinos: recuperación de la memoria histórica	Legarreta, Josu; Mignaburu, Magdalena	2016	978-84-457-3394-3	28,85 €	
Soziologiazko euskal koadernoak 30	Carbajo Padilla, Diego; González Durán, Sandra	2017	1575-7005	5,77 €	
Hizkuntzak eta alderdi politikoak: diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan	Gorrigolzarri Garaizar, Jone	2017	978-84-457-3414-8	12,50 €	
Newyorktarrak: origen de la comunidad vasca de Nueva York, 1880-1955	San Sebastián, Koldo; Aguirre, Anna M.	2018	978-84-457-3432-2	17,31 €	
La Congregación de San Ignacio: el asociacionismo vasco en Madrid en el umbral del siglo XX	Ruiz de Azúa y Martínez de Ezquerorecocha, Estibaliz	2018	978-84-457-3431-5	17,31 €	
Abangoardia maite duen antzinako herria <i>Un pueblo ancestral que ama la vanguardia</i> <i>Un peuple ancien qui aime l'avant-garde</i> <i>An ancient country in love with modernity</i>	Uribe, Kirmen	2018	978-84-457-3439-1	9,62 €	
(PDF) Abangoardia maite duen antzinako herria <i>Un pueblo ancestral que ama la vanguardia</i> <i>Un peuple ancien qui aime l'avant-garde</i> <i>An ancient country in love with modernity</i>	Uribe, Kirmen	2018	978-84-457-3448-3	1,58 €	
<hr/>					
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK					
Segregación y estiba de mercancías peligrosas 2017	Garaita Gutiérrez, Fernando	2017	978-84-457-3418-6	13,46 €	
Aharien erroda: Ardiekingo Ar Hauta-tokia		2018	2340-6119	9,62 €	

2018ko urriaren 1a, astelehena

TITULUA	EGILEA	URTEA	ISBN/ISSN	PREZIOA
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK				
Zerbitzuan 62: gizarte zerbitzueta aldizkaria		2016	1134-7147	5,77 €
Zerbitzuan 63: gizarte zerbitzueta aldizkaria		2017	1134-7147	5,77 €
Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015		2017	978-84-457-3419-3	22,12 €
Euskadiko gazteak 2016		2017	978-84-457-3435-3	24,04 €
Zerbitzuan 64: gizarte zerbitzueta aldizkaria		2018	1134-7147	5,77 €
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA				
Udalplan 2016: EAeko geografia informazio sistema eta lurralde datutegia		2016	1889-7940	28,85 €
Udalplan 2017: EAeko geografia informazio sistema eta lurralde datutegia		2017	1889-7940	28,85 €
Donostialdea (Donostialdea-Bidasoa Behereoa) eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala		2017	978-84-457-3413-1	11,54 €
Euskadiko eguneko tximeletak	Monasterio León, Yeray; Escobés Jiménez, Ruth	2017	978-84-457-3420-9	11,54 €
Mariposas diurnas de Euskadi	Monasterio León, Yeray; Escobés Jiménez, Ruth	2017	978-84-457-3421-6	11,54 €
Acoubat-dBMat: eraikinaren portaera akustikoa modelizatzeko tresna Acoubat-dBMat:		2018	978-84-457-2353-1	775,86 €

2018ko urriaren 1a, astelehena

TITULUA	EGILEA	URTEA	ISBN/ISSN	PREZIOA
OGASUNA ETA EKONOMIA				
EKONOMIAZ 90: Tamaño empresarial y crecimiento en tiempos de crisis		2016	0213-3865	11,54 €
EKONOMIAZ 91: Economía feminista: enfoques y propuestas		2017	0213-3865	11,54 €
EKONOMIAZ 92: Papel de la universidad en el desarrollo regional		2017	0213-3865	11,54 €
EKONOMIAZ 93: Servicios públicos de empleo. Análisis y perspectivas		2018	0213-3865	11,54 €
HEZKUNTZA				
Irakaskuntza entainetako Urruzumotarrak gehituz literatura-ekimena 2017: lan sarituen bilduma		2017	978-84-457-3416-2	4,81 €
Hezkuntza Euskadin: txostenia		2017	2530-4631	23,92 €
OSASUNA				
Guía de actuación en el síndrome Prader-Willi	Mourelo Álvarez, Elena; Ruiz Ortega, Mónica; Sandonis Ruiz, Luis Mariano	2017	978-84-457-3417-9	3,85 €
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA				
Arkeokuska 2015: arkeologi ikerketa		2016	0213-8921	17,31 €
Arkeokuska 2016: arkeologi ikerketa		2018	0213-8921	17,31 €
Azokak, blitzarrak eta jendeaurreko ikuskizunak hiztegia		2017	978-84-457-3422-3	2,88 €
Ehiza eta arrantzaz hiztegia		2017	978-84-457-3425-4	2,88 €
Garrailoa eta logistika hiztegia		2017	978-84-457-3428-5	2,88 €
Hiesa hiztegia		2017	978-84-457-3423-0	2,88 €
Mendekotasuna hiztegia		2017	978-84-457-3426-1	2,88 €
Mineralak hiztegia		2017	978-84-457-3429-2	2,88 €
Sare sozialak hiztegia		2017	978-84-457-3424-7	2,88 €
Telefonía hiztegia		2017	978-84-457-3427-8	2,88 €

2018ko urriaren 1a, astelehena

TITULUA	EGILEA	URTEA	ISBN/ISSN	PREZIOA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA				
Traumatología hiztegia		2017	978-84-457-3430-8	2,88 €
Euskararen historia		2018	978-84-457-3433-9	24,04 €
Historia de la lengua vasca		2018	978-84-457-3434-6	24,04 €
(ePub-PDF) Euskararen historia		2018	978-84-457-3446-9	3,95 €
(ePub-PDF) Historia de la lengua vasca		2018	978-84-457-3447-6	3,95 €
Registro fósil de los Pirineos occidentales: bienes de interés paleontológico y geológico: proyección social	Badiola, Ainara; Gómez-Olivencia, Asier; Pereda Suberbiola, Xabier	2018	978-84-457-3437-7	13,46 €
SEGURTASUNA				
Demokrazia paritarioa Euskadin: 2001-2016: enakumeen eta gizonen parte-hartze soziopolitikoa Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde- prozesuetan	Campos, Arantza	2018	978-84-457-3436-0	9,62 €
Euskal Autonomia Erkidegoko baso suteetarako larraindi Plan berezia: 2016ko bertsioa		2017	978-84-457-3415-5	5,77 €